



PROGRAMAZIO **2005**
ARTISTIKOA

GuggenheimBILBAO

BILDUMA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: ***Informalismoa eta Espresionismo Abstraktua Guggenheim Bildumetan***
Datak: 2005eko martxoaren 8a-azaroaren 6a
Komisarioak: Tracey Bashkoff eta Petra Joos
Aretoak: 305, 306, 307

AURKEZPENAREN EDUKIA


1945. urte inguruan, Europan eta Amerikako Estatu Batuetan sortutako margolari-talde batek modernotasun plastikoaren aldi erabakigarri bati eman zion bide adierazpen-aniztasunaren bidez. Modernotasun plastiko hark, Informalismo edo arte informal izena hartu zuenak, esperientzia abstraktuz osaturiko eremu zabala hartzen zuen barne.

Europan, filosofia existentzialistaren babesean eta II. Mundu Gerraren eragin traumatikoen eraginpean, artistek pinturari heldu zioten berriro. Pintura-mota hartan, aurreko abangoardietan nabarmentzen ziren utopia-gakoei eta esperimentazioari, adierazpenaren mestizajea eta sintesia gailendu zitzaizkien. Pintura informalistak humanismo klasikoaren azken oinarriak apurtu zituen, baita pintura-printzipiorik esanguratsuenak ere: forma, tonu-harmonia, oreka, proportzioak, unitate-konposizioa eta egituraketa zentralizatuak. Bien bitartean, Amerikako Estatu Batuetan arteak keinuan eta adierazpenean oinarritutako pintura-estilo bateranzko bilakaera izan zuen, gehienez Espresionismo Abstraktu gisa deskribatu izan dena. Mugimendu honen baitan sartzekoa da ekintza-pintura. Pintura-mota honi espresionisten heroismo subjektibotik hartutako ezaugarri adierazkorak surrealisten idazkera automatikoaren teknikarekin konbinatuz datorkio izena, eta Jackson Pollock du artistarik esanguratsuenak. Joera honetako margolari nagusiak forma eta emozioa bateratzen saiatu ziren, eta ohiko pintzelaz gain, pintura aplikatzeko prozedura ezberdin eta berritzaileak ere erabili zituzten; margotutako azaleraren garrantzia baieztatuz modu horretan.

Espresionismo Abstraktuko beste zenbait artistak koloretako plano handiak erabiltzen zituzten egoera espiritual jakinak gogora ekartzeko. Koloretako esparruak margotzen zituzten edo "isiltasunaren" margolari ziren artista hauentzat, hala nola Mark Rothko-rentzat, mezua meditazio-jarduera baten, lirismo eta espiritualtasun sakonaren ondorio zen.

Bilduma Iraunkorreko aurkezpen honek bi mugimendu hauetako artista nagusien artelanak hartuko ditu barne, hala nola Sam Francis, Philip Guston, Franz Kline, Pierre Soulages edo Antoni Tàpies artistenak. Artelan horietako zenbait, gainera, gure Museoan aurretik inoiz aurkeztu gabeak dira.

BILDUMA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: ***Denboraren substantzia***
Datak: 2005eko ekainaren 7tik aurrera
Komisarioa: Carmen Giménez
Aretoa: 104



AURKEZPENAREN EDUKIA

Guggenheim Bilbao Museoak datorren ekainaren 7an Richard Serra artista iparramerikarrak Guggenheim Bilbao Museoaren Bilduma Propiorako sortutako zazpi eskultura monumentalez osaturiko multzoa inauguratuko du. Eskultura hauek *Sugea* (*Snake*, 1994–97) artelanaren alboan, hots, artista honek Frak Gehryk diseinatutako eraikuntzako 104 aretorako propio eginiko artelanaren alboan instalatuko dira. Modu honetan, eskalari eta helmenari dagokionez, arte garaikidearen historian aurrekaririk gabeko gune eskultoriko egonkorra osatuko da, eta Museoa artista miresgarri honen ezohiko eta aparteko obra sakontasunez esperimentatzeko ezinbesteko helmuga bilakatuko da.

Richard Serraren egitekoa, ekoizpen-prozesuan, materialen ezaugarri berezietan eta ikuslea gune eskultorikoan barneratzean oinarritzen da. Eskultura-multzo hau osatzen duten zazpi artelanek artistak *Bihurritu eliptikoak* seriean jorratutako mintzaira formala dute jatorri. *Bihurritu eliptikoak* seriea Guggenheim Bilbao Museoa izan zen ikusgai 1999. urtean.

Instalazio berri honetan, Richard Serrak mintzaira hau sakondu du, gero eta forma konplexuagoak gauzatu. Artelan bakoitzak Cor-ten altzairuzko bi xafra kurbatu edo gehiago du, bakoitza 3,56 eta 4,27 m. bitarteko altuerakoa. Piezarik arinena bi xafrak osaturikoa da eta 44 tonako pisua du. Astunena, berriz, zortzi xafraz eginikoa da, eta 276 tonako pisua du. Elipse soil batetik abiatuz, aipaturikoa barne hartzen duen neurri handiagoko beste bat sortzen du, modu honetan elipse bikoitza sortuz; eta elipse baten barnealdea beste baten kanpoaldearekin lotuz, kiribilak sortzen ditu, nahiz eta ezin aurreikus daitekeen hauen barnealdea kanpotik. Ibilbideko azken bi piezek espazioen balizko aldagarritasuna jorratzen dute, eta sekzio esferiko eta toroidalak erabiliz eraikiak dira, mintzaira, mugimendu eta pertzepzio ezberdineko inguruak itxuratuz. Eskultura hauek, ikusleek inguratzen eta zeharkatzen dituztenean mugimenduan diruditenak, ezin ahantzizko bertigoaren edo mugimenduzko espazioaren sentipena eragiten dute.

BILDUMA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: ***Esperientzia elkarbanatua. Guggenheim Museoetako Bilduma Iraunkorra***
Datak: 2005eko ekainaren 7a-2006a
Komisarioa: Carmen Giménez
Aretoak: 103 eta 105


AURKEZPENAREN EDUKIA

Hirugarren solairuko areto klasikoetan aurkeztutako artelanei eta ekainetik aurrera aurkeztuko den Richard Serraren instalazioei loturik, Guggenheim Bilbao Museoak artista europarren eta amerikarren artelan-aukeraketa inauguratuko du 103 eta 105 aretoetan. Artista hauek Museoaren Bilduma Propioaren ardatzetako bat islatzen dute: gerra ondoko arte amerikarraren eta europarraren arteko harremana.

Guggenheim Bilbao Museoaren Bilduma Propioak XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrerako artearekiko interesa du eta, hortaz, aurkezpen honek azken hiru hamarkadetan sortutako arte-mugimenduetan jarriko du arreta, pop artearen, minimalismoaren, *povera* artearen eta kontzeptualismoaren artelan adierazgarriak ez ezik ondoz ondoko belaunaldietan mugimendu hauek izan duten garapena ere barne hartuz.

Hirurogeiko hamarkadaren amaieran, *povera artea*, arte pobrea, terminoa sortu zen artista-talde baten lana deskribatzeko. Artista hauetan gehienak italiarrak ziren eta, hiru dimentsioko piezetan material industrialak, organikoak eta eguneroko material ezohikoak erabiltzen hasi ziren, naturaren eta gizakiak sortutakoaren arteko gatazka adierazteko. Modu honetan, Jannis Kounellis-ek bere *Izenburu gabea* (1988) artelanean ikatza eta burdina material industrialak konbinatu zituen nahita, eta horman kokatu zituen koadro gisa. *Arte poveraren* garaikide den *Land art* delakoak areagotze bidean den naturarekiko hurbiltasunaren beharra zein artea merkaturatzeari uko egiteko beharra islatzen du. Natura jada ez da artelanerako testuinguru hutsa artelanaren protagonista bera baizik, Richard Long-en instalazio poetikoek adierazten dutenez. Bestalde, Christian Boltanski-k bonbillak eta pertsona anonimoen argazkiak erabiltzen ditu bere instalazioetan, heriotza, denbora eta oroimena gisako gai unibertsalak aztertzeko. Aurkezpena Donald Judd, Anselm Kiefer, Sigmar Polke, Robert Rauschenberg edo Gerhard Richter gisako artisten artelanek osatzen dute.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: ***Yves Klein***
Komisarioak: Olivier Berggruen eta Ingrid Pfeiffer
Egoitzak: Schirn Kunsthalle Frankfurt eta Guggenheim Bilbao Museoa
Datak: 2005eko otsailaren 1a-maiatzaren 2a
Aretoak: 103, 104 eta 105



ERAKUSKETAREN EDUKIA

Guggenheim Bilbao Museoa *Yves Klein* erakusketa aurkeztuko du 2005eko otsailaren 1etik maiatzaren 2ra bitartean. Atzera begirako honek oparotasun handikoa den sortzaile honen arte-ibilbidea zeharkatuko du. Artista hau bere garaiko arte-joera askoren aitzindari izan zen. Joera horien artean aipatzekoak dira *happening-ak*, *performance-ak*, *Land* eta *Body Art-a* edo XX. mendeko bigarren erdialdeko nazioarteko artearen testuinguruan nagusitu ziren arte kontzeptualaren alderdiak. Erakusketa, arte historialari ospetsua den Olivier Berggruen eta Frankfurtoko Schirn Kunsthalle-ko kontserbatzaile den Ingrid Pfeiffer komisario dituen, Museoko lehen solairuko 103, 104 eta 105 aretoetan izango da ikusgai.

Erakusketa honek ehunen bat artelan batzen du; Yves Kleinek arte-ekoizpenean emaniko zazpi urteetan bereizten diren aldi ezberdinen adierazgarri direnak. Bere lehen margolan monokromo laranja, horiak, berdeak, gorriak, beltzak edo zuriak; belakizko monokromo, erliebe eta eskultura urdin ospetsuak; Antropometria eztabaidagarriak, hauek egiteko modelo emakumezkoak erabiltzen baitzituen pintzel bizidunak bailiran; monodoratuak edo urre-koloreko monokromoak; eta suarekin eta naturako elementuekin eginiko bere azken esperimentuak. Aukeraketak artista honen bi artelan esanguratsu hartzen ditu barne: *Antropometria urdin handia* (ANT 105) eta *Su-iturria*. Azken hau Museoaren urmaelean kokaturik dago, errio bazterrean. Bi artelan hauek Guggenheim Bilbao Museoaren Bilduma Propioarenak dira.

Erakusketak, bere burua "Yves monokromoa" izendatu zuen artista honen ezohiko aniztasuna eta izaera irudikorra eman nahi du aditzera. Koloreak guztizko garrantzia hartzen du bere artelanean "materializatutako sentikortasun" gisa, eta honen bidez, ikusmen-pertzepzio hutsa dena zentzumenaren bidez hauteman daitekeen osoko kontzeptu bilakatzeko ahalegina egiten du. Artistak kolorearen espazio mugagabea sartzeko eta immaterialarekiko sentikortasun handiagoa esperimentatzeko erronka luzatzen dio ikusleari.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

- Izenburua: ***Azteken Inperioa***
Komisarioa: Felipe Solís
Egoitzak: Solomon R. Guggenheim Museum eta Guggenheim Bilbao Museoa
Datak: 2005eko martxoaren 15a-irailaren 18a
Aretoak: bigarren solairua eta hirugarren solairuko 301, 302, 303 eta 304 aretoak

ERAKUSKETAREN EDUKIA


Errenazimenduak, zientzia eta arteen esparruan gertaturiko mugimendu intelektuala ez ezik XV. Mendeko Europaren bereizgarri ere badenak, parekoa izan zuen Antzinako Mexikoren esparruan. Azken honetan, bi estatu indígena boteretsu loratu ziren: Azteken Inperioa batetik eta haren auzo eta etsai tradizional zen Taraskoen Inperioa bestetik.

Azteken Inperioa erakusketak garai hau birsortzen du, Mexikotik kanpo inoiz aurkeztu den arte-objektu kopururik handiena bilduz. Artelan hauek garapen mesoamerikarraren azken aldian elkarrekin bizi izan ziren herri ezberdinek eginak dira. Aldi hau posklasiko berantiarra izenez ezagutzen da arkeologian, eta XIII-XVI bitarteko denbora-tartea hartzen du barne.

Erakusketa 600 objektu inguruk osatzen dute, eta horien artean orain arte Mexikotik kanpo inoiz ere ikusi ez diren aurkikuntza arkeologiko garrantzitsuak daude. Horietariko gehienak Mexiko Hiriko Museo Nacional de Antropología e Historia-tik, Templo Mayor-eko museotik eta indusketatik eta europar eta amerikar bilduma publiko entzutetsuetatik datozenak dira. *Azteken Inperioak* kolonaurreko kultura honen garapenaren bidea egiten du. Horretarako, Azteken lehenengo arbasoetatik hasi eta europar konkistaraino doazen hamar gaiak darabiltza, Inperioaren garapenetik amaierara gizarte Aztekaren adierazpide sakona eskainiz.

Erakusketa, Mexikoko Consejo Nacional para la Cultura y las Artes-en (CONACULTA) eta Instituto Nacional de Antropología e Historiaren lankidetzarekin (INAH) antolatuta dago eta Felipe Solís du komisario, hots, Museo Nacional de Antropología de Ciudad de México-ko zuzendari ez ezik azteken artearen eta kulturaren aditu nagusietako bat ere badena. Erakusketaren diseinu ikusgarriaren arduraduna Enrique Nortén arkitektoa da.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: ***ArkiEskultura***
Komisarioa: Markus Brüderlin
Egoitzak: Fondation Beyeler eta Guggenheim Bilbao Museoa
Datak: 2005eko urriaren 11-2006ko otsaila
Salas: bigarren solairua, 301, 302, 303 eta 304 aretoak

ERAKUSKETAREN EDUKIA

Guggenheim Bilbao Museoa 2005eko udazkenean *Arquiescultura* erakusketa aurkeztuko du. Erakusketa honek arkitekturaren eta eskulturaren arteko erlazio estua eta hartu-emana aztertzen du. Erlazio hau, historian zehar adierazi izan bada ere, XX. mendeko arte-fenomenorik erakargarrienetakoa bilakatu da.

XIX. mendearen amaieran eskultura modernoak jaio zenetik, arkitektura eta eskultura bereizten zuten mugak lausotuz joan dira pixkanaka. Eskultura modernoak arkitekturaren eragin nagusiak egin ditu bere, eta horren adibide dira Aristide Maillol eta klasizismoa, edo konstruktibismoa eta gotikoa. Hirurogeita hamarrekota hamarkadan ere, eskultura-instalazio batzuk arkitektura zeharkagarri bilakatu dira, ikusleari objektu artistikoari eta honen esperientziari buruzko pertzepzio guztiz berria eskainiz. Alderantzizko zentzuan, hogeiko hamarkadan jada, eraikuntzak plastikoki modelatzen hasiak ziren arkitektoak, eta egungo arkitekturaren aurki daitezkeen zenbait joerak eskultura modernoaren eraikuntza-bertsioen traza dute.

Gai hau planteamendu arkitektonikoen garapen eskulturalaren alde bakarreko ikuspegitik jorratu duten aurretiko azterketetan ez bezala, Markus Brüderlin-ek, *Arquiescultura* erakusketako komisarioak, erlazio honi buruzko azterketa aberasgarriagoa proposatzen du bi diziplinak oinarri hartuz. Izan ere, erakusketak eskultore handien artelan bereziak eta era berean munduko arkitekturaren esanguratsuak diren eraikuntza-maketak alderatzen ditu. Modu honetan, adibidez, Henry Moore-n eskulturen ondoan Le Corbusier-en Ronchamp-eko *La capilla del peregrino* (1950-54) egurrezko maketa da ikusgai, eta Norman Foster-en Swiss Re etxe-orratzaren maketa Constantin Brancusi-ren eskultura baten ondoan ageri da. Erakusketaren beste alderdi garrantzitsu bat bere zabaltasun historikoa da, XVIII. mendetik gaur egunera arteko ibilbidea egiten baitu.

Formatu handiko margolan- eta argazki-aukeraketa batek osatzen du elkarrizketa hau, 60 artistaren eta 50 arkitektoen 180 objektu inguru batuz.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

- Izenburua: *Eskuak adierazpide. Buhl Bildumako argazkiak*
Komisarioa: Jennifer Blessing
Egoitzak: Solomon R. Guggenheim Museum eta Museo Guggenheim Bilbao
Data: Azaroak 29 - 2006
Aretoak: 305, 306 eta 307

ERAKUSKETAREN EDUKIA

Guggenheim Bilbao Museoak azaroaren 29tik aurrera aurkeztuko duen *Eskuak adierazpide. Buhl Bildumako argazkiak* erakusketak 170 argazki inguruk osaturiko aukeraketa biltzen du. Argazki hauek eskuek argazkietarako gai gisa duten protagonismoa ematen dute aditzera, hein handi batean, baliabide honek zati, xehetasun eta mugimendu iragankorrak atzemateko eskaintzen dituen aukerengatik.

Argazkiak Henry M. Buhl filantropo ezagunaren bilduma zabalekoak dira. Buhl inbertsio-brokerra izan zen 30 urtez, baina jarduera profesional hau utzi eta New Yorkeko SoHo hartu zuen bizileku argazkigintzan jarduteko. Henry M. Buhl-ek arte-erakunde askotan hartzen du parte. Erakunde artistiko askotan hartzen du parte; New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-eko Argazkigintza Batzordeko kide da, eta bere izena daraman Fundazioak argazkigintza-bikaintasunaren beka eskaintzen du bi urtean behin. Gainera, Henry Buhl-ek publikoaren gorengo aitortpena jaso du Partnership erakundeko sortzaile eta buru gisa hartu duen gizarte-konpromisoagatik. Erakunde hau baztertuak gizartean integratzen aritzen da lanbide heziketako programa arrakastatsu baten bidez.

Erakusketa honek aurkezten dituen argazkietan eskuen presentzia literalki agertzen da batetik, adibidez erretratuaren testuinguruan, eta modu figuratiboan bestetik, irudi dokumentaletatik ateratako keinuetan. Erakusketak baliabide honen historia osoa barne hartzen duenez, argazkigintza-praktiken ikuspegi osoa aurkezten du, argazkigintza zientifikoa, kazetaritzakoa eta artistikoa barne, eta enfasi berezia jartzen du gaur egungo artisten argazkigintzan.

Argazki-aukeraketa hau ez dago irizpide kronologikoen arabera sailkatuta, kategoria historikoen eta gai-arloen arabera baizik, eta Museoko hirugarren solairuko hiru areto klasikoetan ikusi ahal izango da. Erakusketak, besteak beste, Janine Antoni, Diane Arbus, Richard Avedon, Robert Capa, Henri Cartier-Bresson, Robert Doisneau, William Eggleston, Walker Evans, Nan Goldin, Andreas Gursky, Dorothea Lange, Annie Leibovitz, Robert Mapplethorpe, László Moholy-Nagy, Nadar, Shirin Neshat, Gabriel Orozco, Man Ray, August Sander edo Cindy Sherman-en gisako artista garrantzitsuen artelanak jasotzen ditu.

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio Arloa

Tel: +34 944359008

Fax: +34 944359059

media@guggenheim-bilbao.es